



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak erabilitako landare-olioa biltzeko eta kudeatzeko sektoreko bi enpresa zigortu ditu, merkatua euren artean banatzeagatik**

---

Arau-haustea oso larritzat hartu du, eta 40.000 euro inguruko zenbateko osoa hartuko duten zehapenak ezarri ditu

---

**BILBON, 2020ko urriaren 29an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) adierazi duenez, Ecogras Recuperación y Reciclado S.L. eta Rafrinor S.L. enpresek arau-haustea egin dute, Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki erakundeek (udalek eta mankomunitateek) 2002tik 2013ra bitartean esleitutako kontratuen bitartez erabilitako landare-olioa biltzeko eta kudeatzeko merkatua bien artean banatzeko akordioa dutelako.**

LEA/AVCk oso arau-hauste larritzat jo du, Lehiaren Defentsarako Legearen 62.4.a) artikulua araberan, eta 14.465,79 euroko zigorra ezarri dio Ecogras eta 25.375,33 eurokoa Rafrinorri. LEA/AVCk ezarritako isunak betearazteko eta ebazpena osorik bete dutela justifikatzeko agindu die zehatutako enpresei, gauzatzen denetik hilabeteko epean.

Isilpeko ikerketa Eko Gasteiz enpresak jarritako salaketaren ondorioz hasi zen. Salaketa horretan, orain zigorra jaso duten enpresak agian kontratu publikoen merkatua banatzen ari zirela jakinarazi zuen. Eskuragarri zegoen informazioa ikusita, LEA/AVCk Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzuak zeudela hauteman zuen, eta zantzu horiek berretsi egin ziren enpresen egoitzetan ikuskapenak egin ondoren. 1. artikulua horrek kolusiozko jokabideak jasotzen ditu, eta lehia askeari eragiten dion edo eragin diezaiokeen akordio oro debekatu egiten dela adierazten du, merkatuaren banaketari dagozkionak, batez ere. 2019ko otsailean, LEA/AVCk zehapen-espedita ireki zuen lehiaren aurkako balizko jokabideengatik.

Enpresek elkarren artean adosten zuten olio biltzeko bakoitzaren jarduketaren eremua, eta, ondorioz, enpresa bakoitza bere eremuan aurkezten zen, udalek eta mankomunitateek olio biltzeko deitutako lizitazioetan. Horrela, enpresa bakoitzak uko egin zion beste enpresak tokiko administrazio bati zerbitzua ematen zion udalerrietan lehiatzeari.

LEA/AVCren ustez, "egiaztatutakoa bezalako akordio batek lehia modu nabarmenean faltsutzen du era automatikoa, eta horretan parte hartzen duten enpresei soilik egiten die mesede, gainerako lehiakideen aurrean lehia-abantaila ematen dielako, eta gainerako lehiakide potentzialei eragotzi edo nabarmen zailtzen dielako Autonomia Erkidegoko toki-administrazioek (udalak eta mankomunitateak) esleitutako kontratuen bitartez erabilitako landare-olioa biltzeko eta kudeatzeko merkatuan sartzea. Hori oso kaltegarria da lizitazio deialdia egin duten administrazioentzat, eta, beraz, eragindako kaltea zergadunei jasanarazten die".



**Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoetara dagokienez.